

KARMELE MUÑOA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2011ko martxoaren 23an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

15.- FOTOKOPIAGAILUETAKO PAPERA, BULEGOKO MATERIAL KONTSUMIGARRIAK ETA KONTSUMIGARRI INFORMATIKOAK HORNITZEKO KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Xedea

Fotokopiagailuetako papera, bulegoko material kontsumigarriak eta kontsumigarri informatikoak hornitzeko kontratua behin-behinekoz esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2010eko irailaren 29an Tokiko Gobernu Batzarrak fotokopiagailuetako papera, bulegoko material kontsumigarriak eta kontsumigarri informatikoak hornitzeko kontratuaren baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban.

Bigarrena: 2010eko urriaren 27an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean lizitazio iragarkia argitaratu zan (BAO 2010/207. zk.).

Hirugarrena: Aitatutako kontratazino prozedurara honeek parte-hartzaileak aurkeztu dira:

Hiru lotetan bananduta dago kontratua, eta honeek dira lizitatzailerak:

1. LOTEA.- FOTOKOPIAGAILUETARAKO PAPER TCF.- MONTTE, POPYNDUX, OFFISERVICE.
2. LOTEA.- KONTSUMIGARRI INFORMATIKOAK.- MONTTE, POPYNDUX, OPTIZE
3. LOTEA.- BULEGOKO MATERIALA.- MONTTE, POPYNDUX.

Argudioak

Lehenengoa: Egin beharreko konparaketak egin ostean, honeek dira puntuazioak:

1. LOTEA.-

1. LOTEA.- PAPER A4-A3 TCF				
		MONTE	PAPYNDUX	OFISERVICE
MARKA		CLASSIC WHITE	VENUS TCF	LYRECO TCF
GITXIENeko EZAUGARRI TEKNIKOAK	A4-A3	BAI	BAI	BAI
	80GR	BAI	BAI	BAI
	TCF	BAI	BAI	BAI
	IRAUPENA	ISO5630-1:1991	ISO 9706	ISO 9706
	EGOKITASUN TEKNIKOAK	EN 12281:2003	EN 12281	EN 12281:2002
	ZURITASUN MAILA	ISO2470:1999	159 CIE	150 CIE
LEHENTASUNA	FSC	EZ	BAI	EZ
	PEFC	EZ	BAI	BAI
ESKAINZA EKONOMIKOA	PREZIOA A4 (500 ORRI)	2,37	2,65	2,90
	PREZIOA A3 (500 orri)	4,74	5,52	6,73
PUNTUAKETA	PUNTUAZINO A4	60,00	53,66	49,03
	PUNTUAZINO A3	60,00	51,52	42,26

ESKAINTZARIK ONENA MONTE ENPRESEARENA DA

2. LOTEA.-

2. LOTEA.- KONTSUMIGARRI INFORMATIKOAK			
	MONTE	PAPYNDUX	OPTIZE
PREZIO KONPARAKETA	11.823,37	10.186,22	11.067,51
BIRZIKLAPENA	BIOTONER &R	PAPYNDUX	CORE-ARM SL
PREZIO PUNTUAKETA	51,69	60,00	55,22
BIRZIKLAPEN PUNTUAKETA	40	40	40
DANERA	91,69	100,00	95,22

ESKAINTZARIK ONENA PAPYNDUX ENPRESEARENA DA

3. LOTEA.-

3. LOTEA.- BULEGOKO MATERIALA		
	MONTE	PAPYNDUX
PREZIO KONPARAKETA	65.346,75	54.935,67
IRAUNKORTASUN ERISPIDEAK-ARTIKULU KOPURUA-	17	18

PREZIO PUNTUAZINOA	50,44	60,00
IRAUNKORTASUN PUNTUAZINOA	37,78	40
DANERA	88,22	100,00

ESKAINTZARIK ONENA PAPYNDUX ENPRESEARENA DA

Bigarrena: Goian azaltzen dan legez, eskaintzarik onena PAPYNDUX enpresearena izan da 2. eta 3. loteetan, eta MONTTErena 1. lotean.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Behin-behineko esleipenak ondorengo enpresen alde egitea:

- 1. LOTEA.- Fotokopiagailuetarako Papera TCF, MONTTE enpresearen alde.
- 2. LOTEA.- Kontsumigarri informatikoen hornidurea, PAPYNDUX enpresearen alde.
- 3. LOTEA.- Bulegoko material kontsumigarrien hornidurea, PAPYNDUX enpresearen alde.

Kontratu epea: Urte birako, 2011-2012. Luzagarria beste ute birako.

Prezioa: Unidateko prezioetan, esleipendunaren prezio taulearen arabera.

Ganerako gastuak prezioetan sartu dira, kanon digitala eta BEZari jagokona izan ezik.

BIGARRENA: Esleipendunari jakinarazotea, hornidurak egiterakoan, baldintza-agirietan jasota dagozan iraunkortasuneko baldintzak bete beharko dazala, produktuei jagokezanak barne.

HIRUGARRENA: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dazan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dazala.

LAUGARRENA: Esleipendunari gogorarazotea, behin betiko esleipena egin aurretik, behin betiko bermea ezarri behar dauela Udal Diruzaintzan. Ostean, jagokon kontratua sinatuko da.

Era berean, behin-behineko bermeak itzuliko dirala jakinarazoten jake parte-hartzaileei.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2011ko martxoaren 28an.

ONETSIA
ALKATEA